

Donostia, 2017ko abenduaren 15a

IDAZKARI NAGUSIARI

DONOSTIA KULTURAN EGITEN DIREN KONTRATAZIOEI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udaltzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, ondorengo KONTROL MOZIOA aurkezten du, Donostia Kulturaren egiten diren kontratazioei buruz eta sexuaren araberako informazio xehakatuari buruz hil honetan PERTSONENTZAKO ZERBITZUETAKO Batzordean egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Datorren urterako aurrekontu proiektua generoaren ikuspegitik aztertzea ezinbesteko tresna da hirian emakume eta gizonen arteko berdintasun egiazkoaren eta eraginkorraren alde apustu irmoa egingo bada.

Azterketa horretan, Donostia Kultura sozietatearen atalean, gabezia bat planteatu da; hain zuzen, egitarau horretan egiten diren tailer, hitzaldi, erakusketa eta abarrei begira sozietateak egiten dituen kontratazioetan datuak ez daude sexuaren arabera xehakatuta.

Datu horiek funtsezkoak dira errealitatea zein den jakiteko. Oinarrizkoak dira emakumeen kontratazioak hobetzeko, eta lagungarri esparru honetan ere sortzen den kristalezko sabaia hausteko.

Unescok 2015ean landutako "Genero berdintasuna: Ondarea eta Sormena" txostenean mundu mailako hainbat gabezia eta hutsune nabarmentzen dira: emakumeen partaidetza mugatua zuzendaritza eginkizunetan (kristalezko sabaia), zenbait jardueratan sortzen den bereizketa (kristalezko hormak), aukera mugatuak etengabeko prestakuntzan, ordaindu gabeko lanean dagoen desoreka, lan baldintza negargarriak, edota emakumeentzat eta gizonentzat kulturalki egokitzat jotzen diren genero estereotipoek oraindik ere indarrean irautea.

Espainiako Estatuan, "Kulturaren genero berdintasunerako elkartera"-k argitara emandako datuek erakusten dute sortzaileak (gidoilariak, zinema eta serieetako aktore eta zuzendariak, idazleak, ikus-

entzunezko arte sortzaileak, poetak, konpositoreak, antzerkigileak, herri musikako taldeak...) edo kultur eragileak (zinema eta arte eszenikoetako ekoizleak, editoreak, orkestra zuzendariak, museo zuzendariak, zinema eta serie zuzendariak, musika kritikariak, literatura kritikariak...), oso gutxi direla emakumeak, eta gutxiengo hori ia marjinala dela zenbaitetan.

Euskadin, "EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana" dokumentuan jasotakoaren arabera, "Kultura eta arte ekoizpeneko eremuetan, bai eta ikerketan eta zientzian ere, emakume gutxiago daude, eta eremu estrategiko horiek bultzada bat behar dute, emakumeek gizartean modu orekatuan parte hartu ahal izan dezaten".

Kulturan ez da genero arloko diskriminazio positiboko politikarik egiten, kultura kudeaketan eta ekoizpenean ez baitago berdintasun planik.

Ezinbestekoa da zenbait neurri hartzea: emakumeak ikusarazteko neurriak (estatistiketan, prestakuntzan, komunikazioan eta lengoaietan erabiltzen diren estereotipo baztertzailerik dagokienean, gizartearen eta administrazioaren eskala guztietan generoa zehar-lerrotzat tratatzea...); hezkuntzan sentsibilizatzeko neurriak; rol aldaketak bultzatzeko neurriak (zaintza lana...); lan merkatu baztertzailerik zuzentzeko neurriak; sustapen neurriak (epaimahaiak, diru-laguntzak...) eta abar. Eta neurri horiek guztiak balioak aldatzera eta emakumeen autonomia eta ahalduzko pertsonala eta kolektiboa lortzera bideratu beharko liriteke.

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio udal sozietate publikoen bidez egiten dituen kontratazioen informazioa sexuen arabera xehakaturik ematea berma dezala.
2. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio kultura arloko kristalezko sabaia hautsi dezala, eta, horretarako, kultura eta arte eskaintza publikoan emakumeen eta gizonen kontratazio orekatua susta dezala, modu horretara erakusketetan, antzezlanetan, tailerretan, hitzaldietan eta/edo kontzertuetan emakume sortzaileen ageriko presentzia areagotzeko eta nabarmentzeko.

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.